

❖ Hurrengo taulan agertzen diren datuak, euskara hitz egiten den lurraldeetako biztanleen hizkuntza-gaitasunei buruzkoak dira. Irakurri taula arreta handiz eta gero erantzun hurrengo galderei.

Hizkuntza-gaitasuna, elebitasun motaren, hizkuntza-eremuen eta sexuaren arabera (% bertikala). 2006

	Euskal Herria			Euskal AE			Nafarroa			Iparralde		
	Guztira	Gizonak	Emakumeak	Guztira	Gizonak	Emakumeak	Guztira	Gizonak	Emakumeak	Guztira	Gizonak	Emakumeak
Laginaren tamaina (balio absolutuak)	7.185	3.496	3.689	3.599	1.760	1.839	1.587	784	803	1.999	952	1.047
GUZTIRA (%)	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100
ELEBITASUN MOTA:												
Elebidun funtzional eta euskalduna	8	7	8	10	9	10	3	3	3	6	6	5
Elebidun funtzional eta orekatua	8	8	8	9	9	8	3	3	3	11	11	12
Elebidun funtzional eta erdalduna	10	10	10	12	12	12	5	5	5	6	5	6
Elebidun pasiboa	15	17	14	18	20	17	8	7	9	9	10	7
Erdaldun elebakarra	59	58	60	52	50	53	81	82	81	69	67	70

1.- Zenbat pertsonak hartu du parte inkesta honetan galderei erantzunez?

2.- Pertsona horietatik zenbat dira Euskal AEkoak eta zenbat beste lurralde batzuetakoak?

3.- Zein lurraldetan galdetu zaio pertsona gehiagori? Zergatik uste duzu izan daitekeela lurralde guztietan pertsona kopuru berari ez galdetzea?

4.- Taularen behealdean agertzen diren datuak elebitasunari buruzkoak dira; baina datu horiek absolutuak edo ehunekoak dira?

5.- Zein lotura du 3.496 datuak beste hauekin: 1.760, 784 eta 952? Zergatik gertatzen da lotura hori?

6.- Kalkula ezazu, baina kalkulu aritmetikorik egin gabe, hurrengo batuketaren emaitza: $3.599 + 1.587 + 1.999$

7.- Kalkula ezazu, baina kalkulu aritmetikorik egin gabe, hurrengo batuketaren emaitza: $784 + 803$

8.- Euskal Herriko zenbat pertsonak esan du inkesta honetan elebidun funtzional eta euskalduna dela? Eta Euskal AEko zenbat pertsonak esan du gauza bera?

9.- Nafarroako zenbat pertsonak esan du inkesta honetan erdaldun elebakarra dela? Eta Iparraldeko zenbat pertsonak esan du gauza bera?

10.- Ordenan jarri lurraldeak, hurrengo irizpidea kontuan hartuta: erdaldun elebakar gehien duen lurraldetik gutxien duenera.